



## TITULUA

PEDAGOGIA SISTEMIKOAZ ZENBAIT PINTZELADA (12 ordu)

## SARRERA-AURKEZPENA

Pedagogia Sistemikoaren oinarriko kontzeptuak ezagutuko ditugu eta ariketa praktikoaren bidez begirada sistemikoak ikasgelan bertan (baita gure familian, lantokian, lagun artean...) zer nolako aukerak eskaintzen dizkigun bizitzeko aukera izango du. Familia eta eskola komunitatearen arteko elkarlana izango dugu abiapuntu, eta ibilbide bat egingo dugu harremanetan dauden sistema ezberdinetan diharduten hurrenkera sistemikoak (Bert Hellinger) ezagutzetik eta gure egunerokoan, dagokigun arduratik, ikasleen zaintza eta garapena ziurtatzen dituen jardunean sakontzeraino.

## NORI ZUZENDUA

Hezkuntza komunitatean diharduen profesionalari, ikasleekin eta haur zein gazteekin harremanetan dagoenari, gurasoei eta ikuspegi sistemikoan interesa duen pertsona orori.

## LANDUKO DIREN GAIAK

- Pedagogia Sistemikoaren oinarriak eta praxia ezagutzea.
- Sistemak eta berauen arteko elkarlana finkatzea: familia eta eskola.
- Norbere jatorri sistemikoaz ohartzea.
- Bert Hellingerren hurrenkera sistemikoak ezagutzea.
- Ikasleen eta hezkuntza komunitatearen aniztasuna, jatorria eta testuingurua onartzea eta begirada sistemikoa garatzea.
- Hezkuntzako profesional gisa ditugun muga eta funtzioez ohartzea.
- Autoritatearen kontzeptua garatzea: arduratik eta ikasleen zaintza eta garapena ziurtatzetik.

## METODOLOGIA

Edukiak garatzeko azalpenak modu teorikoan eta batez ere teoriaren garapenerako, proposatuko diren praktikak eta bizipenak izango dira ardatza. Ariketa konketuak banaka, talde txikitik eta talde osoan egingo ditugu.

## IZAERA

Teoriko eta praktikoa izango du.

## NORTZUK EMANGO DUTEN

LARRAITZ MENDIZABAL HUITZI: Psikologian lizentziatua (EHU), Haur Hezkuntzako irakasle (EHU), Psikoterapeuta ikastaroa Gestalt eta psikologia humanistikoan, UNEDen Acouturierren psikomotrizitatean formatua, Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku hartze sistemikoan espezializatua. Egun aholkulari lanetan dihardu.

AITZIBER ESNAOLA ARRIBILLAGA: Arkitektoa (UPC), Haur Hezkuntzako Irakaslea (EHU), Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku hartze sistemikoan espezializatua. Egun Lehen Hezkuntzan dihardu lanean.